# eus kal
# pen tsa
# men du
# a ren
# ur- jau
# zi a

〜〜 JOXE AZURMENDI KONGRESUA 〜〜

**2019KO ABENDUAREN 11, 12 ETA 13AN**

San Telmo Museoa

| Joan Mari Torrealdai | Nekane Balluerka | Iñaki Zabaleta | Markel Olano | Jon Insausti | Gotzon Arrizabalaga | Joseba Zulaika | Miren Azkarate | Pruden Gartzia |
| Pako Sudupe | Elixabete Garmendia | Jose Maria Ripalda | Victor Gomez-Pin | Jose Maria Larramendi | Iñigo Martinez | Inazio Aiestaran | Idurre Eskisabel | Beñat Irasuegi |
| Jon Mentxakatorre | Fito Rodriguez | Markos Zapiain | Itsaslore Yarza | Maitane Nerekan | Arantza Etxeberria | Juan Ignacio Perez | Jon Umerez | Oxel Azkarate |
| Jose Ramon Vitoria | Aitor Aritzeta | Jonathan Lavilla | Xabier Insausti | Aitor Sorreluz | Iñaki Soto | Javier Agirre | Arianne Kareaga | Ekai Txapartegi | Andoni Eizagirre |
| Mirene Zufiaurre | Jokin Bergara | Joseba Azkarraga | Eduardo Apodaka | Xabier Barandiaran | Jule Goikoetxea | Egoitz Urrutikoetxea | Ibai Iztueta | Ander Iturriotz |
| Juan Ramon Makuso | Aitzpea Leizaola | Irati Zubia | Unai Bayon | Aritz Aramendi | Maialen Etxeberria | Mikel Urdangarin | Lorea Azpeitia | Haritz Garmendia | Alaitz Aizpuru |
| Haritz Azurmendi | Antonio Casado | Andoni Olariaga | Elena Martinez Rubio | Agnes Cugno | Joseba Sarrionandia |

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Jakin.eus herria kultura hizkuntza

Gipuzkoako Foru Aldundia

antolatzaile

STM San Telmo Museoa | Donostia San Sebastián | DK donostia kultura

laguntzaile

# eus kal
# pen tsa
# men du
# a ren
# ur- jau
# zi a

Joxe Azurmendi Otaegi (Zegama, 1941) filosofoaren ekarpen emankorra egungo begiradatik aztertu eta landuko du Jakinek, UPV/EHUk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako **"Joxe Azurmendi. Euskal pentsamenduaren ur-jauzia"** kongresuak. Izan ere, Euskal Herri garaikideko pentsalaririk oparoena da Azurmendi: filosofia, politika, hizkuntza, kultura eta literatura izan ditu aztergai, diskurtso zehatzak, unean unekoak eta egoerari erantzuten ziotenak, eta arnasa luzeko gogoeta teorikoekin uztartu dituenak. Argitaratu dituen 41 liburuak eta ia 500 artikuluak horren lekuko dira. Azurmendiren ekarpenak hainbat ertzetatik aztertuko ditu kongresuak, bere gizabereari eta erlkarlaguntzari buruzko ideietatik hasi, hizkuntzaren eta kulturaren filosofiak pasa eta naziogintzan amaitu. Dena egiteke eta herri bat birpentsatzeke zegoen garaian hasi zen Azurmendi idatziak plazaratzen, Euskal Herriari baliagarri izango zitzaizkion auziei helduz, eta pentsamenduarekiko eta kulturarekiko aparteko kezka adieraziz. Gaur egun arte. Gaztetan Arantzazuko frantziskotarrei lotua egon bazen ere, unibertsitateko irakasle gisara jardun du gehienbat, EUTG-Deustun lehenengo (1978-1981) eta UPV/EHUn ondoren (1981-2014), 1993tik aurrera bertako Filosofia Modernoko katedradun zela. Horrez gain, Jakin Taldeko kide da 1960az geroztik, Jakin Irakurgaiak bildumaren arduraduna izanik, eta ohorezko euskaltzain ere bada.

Hiru eremu busti ditu, batez ere, Azurmendiren gogoetak. *Euskal pentsamenduaren azterketan* jardun eta bere belaunaldiarekin batera autore tradizionalen irakurketa egin du, Euskal Herrian egon den pentsamendu tradizioa ikusaraziz eta ondorengoei transmitituz. Horrekin batera, *Filosofia eta pentsamendu europarraren azterketan* ere jardun du. Garaiko auzi filosofiko nagusiak landu ditu puntako pentsalarien pare, ekarpen propioak eginez eztabaidari. Gainera, auzi horiek euskaraz eman ditu, euskaldunon komunitateari pentsamendu garaikiderantz leiho bat irekiz. Bukatzeko, unean-uneko *auzi etiko-politikoei* zuzenean heldu die bere bizitza osoan zehar. Euskal Herriaren egoera sozial eta politikoari erantzuteko ideiei buruz gogoeta egin du: borroka antifrankistan abertzaletasuna eta marxismoa uztartuz, lehenik, ETAren, torturen, presoen eta estatu politiken gogoeta saiatuz, ondoren; eta euskalduntasuna ulertzeko modu berriekin elkarrizketan, gaur egun.

Gogoeta hori guztia helburu jakin batekin egin izan du Azurmendik, bere irakurleari zerbait iradokitzeko esperantzarekin. Bere saiakeren iturburua horixe besterik ez da: *Bada nik saiakera idatzi nahi dudalako. Sinesten dudalako ur-jauzi sisteman. Hau da, norbaitek irakurriko nau eta haren burua martxan jarriko da. Ez dut esan nahi nik irakatsi diodala, ez. Norbaitekin hizketan ari garenean, edo norbaiten kontra idazten ari garenean, edo erreferentzia pertsonal bat daukagunean, kasik beti gure ideiak etortzen dira. Alegia, nire ideiak ez dira nireak. Ez dira propietate bat. Baina nire ideiak norbaitek irakurtzen ditu, eta bere ideiak martxan jartzen dira. Horrek ez du beste saiakera bat idatziko, baizik nobela bat idatziko du. Orduan, ideia haueк ur-jauzi modura iritsi egiten dira iritsi behar duten tokira. Hau da nire esperantza behintzat. Eta saiakera idaztearen justifikazioa edo.* Kongresu honek Azurmendiren pentsamenduak sortutako ur-jauzia baliatu nahi du, etorkizunerako emaria indartu eta gogoeta berriak plazaratzeko.

*Mito pixka bat – libertatez –, utopia apal bat, eta mundua gure aurrean zabalik.* Joxe Azurmendi

## Abenduak 11 ASTEAZKENA

**A - ARETOA**

**15:00-15:30**
Harrera

**15:30-16:15**
— IREKIERA —
Markel Olano
Nekane Balluerka
Jon Insausti
Joan Mari Torrealdai
Iñaki Zabaleta

**16:15-16:45**
— KONTZERTUA —
Gotzon Arrizabalaga

**17:15-18:00**
Joseba Zulaika

**18:00-18:45**
Miren Azkarate

**18:45-19:30**
Pruden Gartzia

## Abenduak 12 OSTEGUNA

**A - ARETOA**

**9:00-9:45**
Pako Sudupe

**9:45-10:30**
Elixabete Garmendia

**11:30-12:30**
Jose Maria Ripalda
Victor Gomez-Pin

**12:30-13:15**
Jose Maria Larramendi

**15:00-17:00**
— PENTSAMENDU SOZIALA —
Iñigo Martinez
Inazio Aiestaran
Idurre Eskisabel
Beñat Irasuegi

**17:15-19:15**
— GIZABEREA II —
Jon Mentxakatorre
Fito Rodriguez
Markos Zapiain
Itsaslore Yarza
Maitane Nerekan

**B - ARETOA**

**9:00-11:00**
— GIZABEREA I —
Arantza Etxeberria
Juan Ignacio Perez
Jon Umerez
Oxel Azkarate
Jose Ramon Vitoria
Aitor Aritzeta

**11:30-13:30**
— GOGOETA ETIKOAK —
Jonathan Lavilla
Xabier Insausti
Aitor Sorreluz
Iñaki Soto

**15:00-17:00**
— KOOPERATIBISMOA I —
Javier Agirre
Arianne Kareaga
Ekai Txapartegi

**17:15-18:45**
— KOOPERATIBISMOA II —
Andoni Eizagirre
Mirene Zuñaurre
Jokin Bergara
Joseba Azkarraga

**D - ARETOA**

**9:00-11:00**
— KULTURA, NAZIOA, ESTATUA I —
Eduardo Apodaka
Xabier Barandiaran
Jule Goikoetxea
Egoitz Urrutikoetxea

**11:30-13:30**
— KULTURA, NAZIOA, ESTATUA II —
Ibai Iztueta
Ander Iturriotz
Juan Ramon Makuso
Aitzpea Leizaola

**15:00-17:00**
— IKERTZAILE BERRIAK I —
Irati Zubia
Unai Bayon
Aritz Aramendi
Maialen Etxeberria

**17:15-18:45**
— IKERTZAILE BERRIAK II —
Mikel Urdangarin
Lorea Azpeitia
Haritz Garmendia

## Abenduak 13 OSTIRALA

**A - ARETOA**

**9:00-10:00**
Alaitz Aizpuru
Haritz Azurmendi

**10:00-12:00**
Antonio Casado
Andoni Olariaga
Elena Martinez Rubio
Agnes Cugno

**12:00-12:45**
— ITXIERA —
Joseba Sarrionandiaren testu batekin

**12:45-14.00**
Aginako Zero Bat

Izen-ematea:

www.joxeazurmendikatedra.eus